




Jose Migel Barandiaranen ekarpena Arkeologia, Etnografia eta euskal Mitologiara



Ira. 07 - Ira. 08 2023

Kod. K15-23

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 07 - Ira. 08 2023

Kokalekua

Herri Antzokia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Jose Migel Barandiaranek bere bizitzan ikerketa lerro nagusi hauek landu zituen: Arkeologia, Etnografia/Antropologia Kulturala eta Mitologia. Euskal Herriko hainbat herritan egindako landa-lanei esker XX. mendearen lehenengo erdi aldean baserrietan bizi zen giroa ezagutu ahal dugu (famiariaren ezaugarriak, janariak, lan-motak, baserriko lanak eta tresnak, ohiturak, festak, etab.) eta gainera, oraindik tarteka-tarteka eskualde batzuetan berreskuratu zitezkeen mito, elezahar, ipuin, etab. Bestalde, mendietan aurkitu zituzten trikuharri eta kobetan egindako lanei esker gaur egun ezagutzen ditugun historiaurrearen oinarriak jarri ahal izan zituen.

Helburuak

Ikastaro honetan XX mendean Euskal Herriak eduki duen ikertzaile garrantzitsuenetakora hurbilduko dira hizlariak. Bertan J.M. Barandiaranen landa-ikerketak, obra eta pentsamendua arakatuko dira eta euskal kulturaren ezagutzan eta gizartean izan zuen eragina.

Lankidetz



JMBK



Programa

2023-09-07

09:00 - 09:30	Erregistroa / Registro
09:30 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Ikastaroaren irekitze ekitaldia Agustin Erkizia Olaizola UPV/EHU - Gipuzkoako Campuseko errektoreordea
09:45 - 10:45	“J. M. Barandiaran y el proyecto ETNIKER. Antecedentes, desarrollo y futuro” Dra. M^a Amor Beguiristain Gúrpide Nafarroako Unibertsitatea eta ETNIKER Elkarte José Zufiaurre Goya , ETNIKER Elkarte
10:45 - 11:45	“Barandiaranen mitologia bildumak ustiatzen” Juan Inazio Hartsuaga Uranga Doktorea UPPA eta NUPgatik Hizkuntzalaritza, Ahozko tradizioen eta interpretazioan
11:45 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“JMB-ek garai historikoko arkeologian egindako lanak: gazteluak, eremitorioak” Jaione Agirre García Geografia eta Historian Lizentziatua eta BIBAT Arabako Arkeologia Museoko Teknikari Arduraduna.
13:00 - 14:30	“Irteera J.M.B. Museora. Ikusi ahal izango dira Barandiaran Museoa, bertan ikusgai egongo den erakusketa ibiltaria (Euskal Herriko Erdi Aroko Gazteluak / Castillos Medievales de Vasconia) eta ondoan dagoen Larruntza multzo hidraulikoa eta Errotatxo. Azalpenak emango dituzte: “ Amaia Vicente Flores Barandiaran Museoa - Arduraduna Ander Arrese Gazteluberri eta Jentilbaratzako gazteluen indusketetako - Zuzendaria

2023-09-08

09:15 - 10:30	“JMB eta Atauneko lotura” Jon Aizpurua Barandiaran ATAUNIKER Kultur Elkarte Jexux Aizpurua Barandiaran Barandiaran Fundazioa
10:30 - 11:30	“JMB eta Historiaurrearen inguruko ekarpena” Jose Antonio Mugica UPV/EHU - Letren Fakultatea
12:30 - 17:30	“Irteera Aralar aldera: Oiduko saroia/Pikoketa artzantza mundua eta historiaurreko hilobiratze erritualak (Jentillarri/Arraztarangaña/Argarbi trikuharriak) eta Ondarreko harkutxa eta baratzeak” Jose Antonio Mugica UPV/EHU - Letren Fakultatea Fermín Leizaola Calvo Aranzadi Z. E.

Zuzendaritza



Jose Antonio Mujika Alustiza

UPV/EHU

(Beasain, 1957) Doktorea Historian eta UPV/EHUko Gasteizko Letretako Fakultateko Irakasle Titularra. Aranzadi Z. Elkarteko kidea eta UZEIn ere ibilia arkeologia/historiaurrerako euskarazko hiztegia lantzen. Ikerketa-lerro ezberdinak garatu ditu: Euskal Herriko aztarnategietan aurkitutako historiaurreko tresneria, hezurkizkoa (Isturitz, Urtiaga, Santimamiñe, Santa Catalina, Arenaza, etab.) eta harrizko (Praileaitz I, Herriko Barra, etab.). Landa-lana (miaketak, indusketak) Goierriko megalitotan egin du (trikuharrietan -Trikuaitzi, Zorroztarri, Praalata, etab.-, harkutxetan -Aitxu, Atxurbi-, eta baratze edo harrespiletan -Ondarre, Beaskin-), eta baita Arabako Errioxako sarbidedun trikuharrietan ere, J. Fernandez Erasorekin lankidetzan. Deba inguruko hainbat kobetako indusketak (Astigarraga, Aizkoltxo, etab.) egin edo aztertu ditu (Praileaitz I) lankidetzan X. Peñalverrekin eta S. San Joserekin. Proiektu lehiakor nazional publikoko kide ere izan da eta baita zuzendaria ere. Azken urteetan, Aralarrek, Neolitotik aurrera eta garai historikoetan, mendi inguruak izan duen erabilera edo kudeaketa arkeologikoki aztertzen ari da beste ikerlari batzuekin. Bere argitalpen batzuk aurkitu daitezke esteka honetan: <https://dialnet.unirioja.es/>

Irakasleak



Jaione Agirre García

Jaione Agirre García (Bergara, Gipuzkoa, 1973) BIBAT Arabako Arkeologia Museoaren teknikari arduraduna (2018tik; museoan teknikari moduan 2006tik aritu da). Geografía eta Historian lizentziatua (EHU); Museoetan Masterra (Alcala de Henaresko Unibertsitatean); beste hainbat graduondoko ditu, besteak beste, arkeologiaren kudeaketan eta ondarean didaktikan. EHUko Erdi Aroaren Historiako irakasle ohia, eta euskara -erdara itzultzaile ere izana; ikerketan eta difusioan aritu den gai nagusienak: Erdi Aroaren Historia urbanoa Behe Erdi Aroan eta Aro Modernoaren hasieran; terminologia euskaraz; euskal arkeologia museoak; eta Goierriin trikuharriak eta Aralarren mendien erabilera historikoa J. A. Mujika doktore eta EHUko Irakasle Titularraren zuzendaritzapean ikertzen aritu den taldearen ohiko kolaboratzailea da. Bere argitalpenetako batzuk aurkitu daitezke esteka honetan:
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=887066>



Jexux Aizpurua Barandiaran

- Euskara eta Literatura irakaslea. Goierri Lanbide Eskola. Ordizia (1975-2012). - Zeruko Argia-ko Ataungo berriemaile (1970-76). - DEIAko berriemaile (1985-89). - ATAUNIKER Kultur Elkartearen kosortzailea (2004). - BARANDIARAN fundazioko patrono (2013-2023). Bibliografia laburtua o Barandiaranen inguruko artikulua eta elkarrizketak. □ Zeruko Argia, Nondik, Deia, T.U. Lankide, Egunkaria, El Correo, Goierritarra, Ortzadar, Noticias de Gipuzkoa, Kazeta, Euskonews, Goiberri, Barandiaran fundazioa, Gara, Goierriko Hitza, Naiz, Eusko Folklore, Karmel, Arrate Irratia, ETB1 (Biba zuek) ... o Hemeroteka (1991-2016). 16 tomo. Ataungo udala. - Lankidetzan: o Barandiaran. Gidoia eta dokumentala. Jexux Aizpurua, Santi Etxeberria eta Aitor Auzmendi. EITB. 1986-1989. o Barandiaran. Biografia. Jexux Aizpurua eta Jon Aizpurua. Elkarlanean arg. 1999. o Joxe Migel Barandiaran (1889-1991). Biografia. Jexux Aizpurua /Jon Aizpurua. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila. 2000. o Ataun bidez bidez. 12 oinezko ibilbide, 3 txirrinduzko eta beste 3 mitologiko. Jexux Aizpurua eta Intza Barandiaran. Ataungo udala. 2008. ataunturismo.eus. o Sara Ikerlan Etnografikoa. Barandiaran. Itzulpena. Jexux Aizpurua eta Jon Aizpurua. Euskal Kultur Erakundea,



Jon Aizpurua Barandiaran

Aizpurua Barandiaran, Jon (Ataun, 1958) - Kazetaria (Euskadi Irratia) 1981-2022 - Goierritarra aldizkariko Ataungo berri-emaile (-) - NONDIK aldizkarian hainbat artikulu 1980tik 2022ra. - Jentilbaratza eta Atauniker kultur elkarteko kide. - Jentilen Etorrera ikuskizunaren gidoilari eta zuzendari (1981-2023). - Ipuin-idazle eta kontalari. - Hainbat antzezlan. o Pagoa markes. o Habla en cristiano. o e.a. - Artikuluak: Nondik, Habe, Goierritarra, Argia, Deia... Bibliografia o Barandiaran. Jexux Aizpurua / Jon Aizpurua. Elkarlanean arg. 1999. o Joxe Migel Barandiaran (1889-1991). Jexux Aizpurua / Jon Aizpurua. Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila. 2000. o Jentilen Etorrera, herri baten arima (1981-2005). Ataun VIII. aztergai beka 2005. Ataungo udala. o Sara Ikerlan Etnografikoa. Barandiaran. Itzulpena. Jexux Aizpurua eta Jon Aizpurua. Euskal Kultur Erakundea, Barandiaran Fundazioa eta Sarako Herriko Etxea. Baiona. 2011.



Ander Arrese

Beasain 1977-2-28 Historian lizentziatua eta urpekari profesionala 2004an EHUn Historian lizentziatu ondoren, ikerketa zein eskuhartze arkeologikoetan ekin nion nire arkeologia jardunari. Hainbat zuzendari eta enpresentzat edo nire kontura, autonomo modura lan egin nuen 2011an Suhar Arkeologia S.L.U. sortu nuen arte. Hemendik aurrera Suhar Arkeologiaren aterkipean, lurrean zein urazpian arkeologiarekin lotutako lan desberdinak egiten jarraitu nuen. Urte hauetan bideraturiko indusketen artean daude Murumendiko kastroa, Jentilbaratza edo Gazteluberri gazteluak edo Aitzorrotz2 kobazuloa. Zabalkunde arloan ere erakusketa zein bisita gidatuak egin izan ditugu bai eta ikusentzunezkoen ekoizpena, hala nola “Jentilbaratza, gaizkileen mugan” edo “Murumendi burdinarotik antzinarorra” erakusketak eta “Euskal balezaleen triskantza” dokumentala.



Dra. Mª Amor Beguiristain Gúrpide

Mª Amor Beguiristain Gúrpide (Pamplona, 1949) Arqueóloga y Etnógrafa navarra centrada preferentemente en el estudio del Neolítico y Calcolítico regional. Discípula de José Miguel de Barandiaran, quien despertó su interés por la etnografía y participó en la excavación de Axló (Dima, Bizkaia) bajo su dirección. Su Tesis de doctorado le dirigió el catedrático Ignacio Barandiaran, quien le integró entre sus colaboradores y le permitió participar en excavaciones en Cantabria, Bajo Aragón y Navarra. Asistió a cursos de Typologie analytique del Profesor Georges Laplace. Ha sido Catedrática de Prehistoria y Etnología en la Universidad de Navarra. En el ámbito de la Prehistoria: Entre sus empeños cabe señalar la preocupación por establecer la relación entre monumentos funerarios megalíticos y su hábitat. Ha dirigido excavaciones en: el abrigo del Padre Areso (Bigüéza); el dolmen de Miruatz (Etzarri Aranaz); los dólmenes de Aitzibita, Charracada, Sotoaldea y Morea (Navarra Media). En el ámbito de la Etnología, ha sido discípula de José Miguel de Barandiaran durante sus años de docencia en la Cátedra de Lengua y Cultura Vasca de la Universidad de Navarra; Secretaria del Grupo de Investigación ETNIKER-NAVARRA.



Agustin Erkizia Olaizola

UPV/EHuko Gipuzkoako Errektoreordea, Economía Financiera I

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktorea UPV/EHUn (2012) eta Kontabilitateko irakaslea UPV/EHUn 1989tik. Liburu bat idatzi du, eta hiru liburu eta 25 artikulua zientifiko baina gehiago idatzi ditu. 11 ikerketa-proiektutan parte hartu du, enprekin eta/edo administrazioekin egindako I+Gko 18 kontratutan, eta doktorego-tesi bat zuzendu du. Herri Erakundearen Kudeaketa (HEREKU) (2002-2008) graduondokoa zuzendu du eta UPV/EHuko Gipuzkoako Campuseko errektoreordea da (2017-gaur egun). ETICOP-IT (Etika Praktika Komunitateetan/Ethics in Communities of Practice Ikerketa Taldea) ikerketataldeko kidea da. Biziraun elkartearen sortzaileetako bat da Maite dugu norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkartea/Asociación de personas afectados por el suicidio de un persona querido elkartea, eta udako ikastaro hauetan parte hartu du: "Prevención, intervención y postvención en la conducta suicida: una tarea comunitario (2017)", "El suicidio: abordaje multidisciplinar (2018)", "Suicidio: duelo y prevención (2019)", "Entre el enigma y el estigma: una mirada a la realidad del suicidio (2020)" eta "Abordaje del fenómeno del suicidio desde diferentes perspectivas (2021)".



Juan Inazio Hartsuaga Uranga

EAZ gradua (1980) eta Euskal Filologia (1. eta 2. urtea, 1979-80) Deustuko Unibertsitateko Donostiako Kanpusean. • DEA "Ahozko Tradizioen Semiologian" Pariseko École des Hautes Études en Sciences Sociales ikastetxean. • Hizkuntzalaritzan Doktore (Études Basques) Pauko Unibertsitateko Baionako Kanpusean (1986). LANBIDEA kudeaketa postuetan izan dut beti, gehienetan industriarekin lotuta, eta aldian behin hortik kanpo ere. • Euskaldunon Egunkaria-ko zuzendari komertziala eta zuzendaritza batzordeko kidea (1990-91). • Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria (2003-2004). • Ataungo Udaletxerako Euskal Mitologiaren Museoaren proiektua (2008) • Azken urteotan Afrikarako hainbat lankidetzara proiektu prestatu ditut. BESTELAKO JARDUNAK • EUSKADI IRRATIko Faktoria saioko kolaboratzaile ohia; "Euskaldunak euskaraz ETBn" kanpaina eta sinadura bilketaren eragilea; Zuzen.com-eko parte-hartzailea; ESKAILEREAN EUSKARAZ taldeetako sortzailea; NAIZ IRRATIko Bigarren Kafea saioko kolaboratzailea. IDAZLAN NAGUSIAK • Euskara Zabaltzeko Marketin Plangintza, 1980, EAZ gradu tesina, Gipuzkoako Foru Aldundiak saritua (Argitaratu gabea). • Euskal mitologia konparatua (Kriseilu 1986) • Jentilen Akabera (Kriseilu 1987)



Analista de materiales de construcción y etnógrafo. Miembro de la S. de C. ARANZADI desde 1958, en el que dirige el Dpto de Etnografía, además de Eusko Ikaskuntza y miembro de número de la R.S.B.A.P. Se inició con investigaciones en el mundo de la espeleología. Posteriormente y observando los modos de vida (medicina, ritos, costumbres, etc.) de los pastores se introdujo en el estudio de la cultura material del mundo rural (baserritarras, ikazkiñak), arquitectura vernácula, aperos, sistemas de caza, recipientes etc. de Euskal Herria y zonas aledañas. Entre otros trabajos publicados se pueden mencionar: El Atlas Etnolingüístico de Euskal Herria (1974-1990, dos volúmenes). Autor del proyecto ZAHARKINAK que se expuso en 17 municipios de Gipuzkoa, siendo visitado por 75.000 personas. En él se recogían objetos (más de 24000), aperos, muebles, herramientas, etc. que cedían baserritarras, artesanos, pastores, entre otros. Durante el mes que duraba la exposición se fotografiaban los objetos, hacia una ficha, etc. Autor del libro Euskalerriko Artzaiak; la Cultura Pastoril y la Cultura Agrícola (Enciclopedia Euskaldunak); Notas sobre el pastoreo en Gorbeia; de los cuadernos de diapositivas comentadas sobre Etnografía y Arquitectura popular



Jose Antonio Mugica

J. A. Mujika Alustiza (Beasain, 1957) Doktorea Historian eta UPV/EHUko Gasteizko Letretako Fakultateko Irakasle Titularra. Aranzadi Z. Elkarteko kidea eta UZEIn ere ibilia arkeologia/historiaurrerako euskarazko hiztegia lantzen. Ikerketa-lerro ezberdinak garatu ditu: Euskal Herriko aztarnategietan aurkitutako historiaurreko tresneria, hezurkizkoa (Isturitz, Urtiaga, Santimamiñe, Santa Catalina, Arenaza, etab.) eta harrizko (Praileaitz I, Herriko Barra, etab.). Landa-lana (miaketak, indusketak) Goierriko megalitotan egin du (trikuharrietan -Trikuaitz, Zorroztarri, Praalata, etab.-, harkutxetan -Aitxu, Atxurbi-, eta baratze edo harrespiletan -Ondarre, Beaskin-), eta baita Arabako Errioxako sarbidedun trikuharrietan ere, J. Fernandez Erasorekin lankidetzan. Deba inguruko hainbat kobetako indusketak (Astigarraga, Aizkoltxo, etab.) egin edo aztertu ditu (Praileaitz I) lankidetzan X. Peñalverekin eta S. San Josearekin. Proiektu lehiakor nazional publikoko kide ere izan da eta baita zuzendaria ere. Azken urteetan, Aralarrek, Neolitotik aurrera eta garai historikoetan, mendi inguruak izan duen erabilera edo kudeaketa arkeologikoki aztertzen ari da beste ikerlari batzuekin.



Amaia Vicente Flores

2012 “Energia-eraginkortasuna eta auditoretza energetikoak enpresan” ikastaroa (200 ordu). Ignacio Ellacuría Ikastegia, Vitoria-Gasteiz. 2008 Ingurumen Zientzietan Lizentziatua. EHUko Farmazia Fakultatea, Vitoria-Gasteiz. 2007 “Ingurumen Kudeaketa Enpresan” ikastaroa (30 ordu). EHUko Farmazia Fakultatea, Vitoria-Gasteiz. Gaur egun Amaia Vicente Flores, lazkaotarra, Ingurumen Zientzietan Lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean. Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L. enpresako langilea 2012az geroztik, Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioak kudeatzen duen Aralarko parketxe hedatuari lotuta burutu du bere lan-ibilbidea osoa; zehazkiro, Ataungo Barandiaran museoa eta Lizarrusti parketxean koordinatzaile modura, arreta- eta dinamizazio-zereginetan. Urte horietan

guztietan milaka bisitariei (norbanakoak, ikastaldeak, askotariko taldeak) JM Barandiararen lana eta Aralarko ondarea ezagutzera ematen ahalegindu da. 2012 - 2013 Haizea Ikerketa S.L. aholkularitzan laguntza teknikoa eskaini ingurumen arloko proiektu desberdinetan.



José Zufiaurre Goya,

Jose Zufiaurre Goya (Beasain, 1935) Gaztetan industria-delineazioan eta topografian trebatu zen. Lanbide bezala enpresetan eta, gerora, Kutxetan egin zuen lan. Mendizaletasuna eta mendietako (batez ere Aralar mendikoa) ondare kulturalaren (artzain-txabola, iturri, etab.) inguruko jakinminak etnografiara hurbildu zuen. Honela hasi bere zen lehen harremana J. M. Barandiaranekin eta bere aholkua jarraituz Aralarko pelotalekuei buruzko lan bat egin zuen. Hortik aurrera Etniker Taldeen proiektuan hasi zen lanean. J. M. Barandiaranek garatutako “inkesta etnografiko baterako gida” galdetegia erabili zuen Beasaingo baserrietan, Udalak argitaratu zuena Beasaingo Paperak bilduman. Gainera, beste hainbat liburu (irakaskuntzaz, garai bateko lanbideaz, etab.) eta artikulu ere argitaratu zituen, egunkari eta aldizkari ezberdinetan (Anuario de Eusko Folklore, Goierritarra, Zerain, etab.), gai historikoak eta etnografikoak landuz.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-09-07 ARTE
Orokorra	0 EUR

Kokalekua

Herri Antzokia

15G, 20211 Ataún, Gipuzkoa

Gipuzkoa